

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5877

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 11koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako laneratze- eta gizarteratze-proiektu berezien garapenerako dirulaguntzen 2020ko ekitaldiko deialdia.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, abenduaren 11ko batzarrean hartutako Erabakiaren bidez, 2020. urterako dirulaguntzen deialdia onartu du lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako laneratze eta gizarteratze proiektu berezien garapenerako. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikularen p apartatuan xedatutakoaren arabera, erakunde autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Azaldutakoagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako laneratze eta gizarteratze proiektu berezien garapenerako laguntzen 2020. urterako deialdia argitara ematea. Deialdi hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartu zen, 2019ko abenduaren 11ko batzarrean, eta ebazpen honi erantsi zaio, eranskin gisa.

Bigarrena.– Laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Ebazpenaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 11.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

ERANSKINA

LANA DUTEN LANGILEEI ETA LANA LORTZEKO EDO HARI EUSTEKO
ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONA LANGABEEI ZUZENDUTAKO
LANERATZE- ETA GIZARTERATZE-PROIEKTU BEREZIEN GARAPENERAKO
LAGUNTZEN 2020. URTERAKO DEIALDIA

Urriaren 13ko 3/2011 Legeak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren izaera, helburuak eta eginkizunak arautzen dituenak, honako hau ezartzen du 2. artikuluan: helburua da enplegu egonkor eta kalitatekoa lortzeko eskubidearen garapen osoari laguntzea, eta langileen enplegarritasuna bermatzen lagunduko duen lan-merkatuaren garapenaren alde lan egitea, eta enpresaren eskakizunei egokitutako langileen beharrianak asetzea, bai eta gizartearen eta lurraldearen kohesioari laguntzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan esleitzen zaizkion enplegu-politikak kudeatuz eta lan-arloko legeria egikaritzuz.

Era berean, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatuak onartzen dituenak, 15. artikuluan ezartzen du Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritzari dagokiola sostengua ematea, enplegurako prestakuntza planifikatzea eta diseinatzea, eta babesak, laguntza eta prestakuntzarako ekintza osagarriak ematea, baita enpleguaren eta prestakuntzaren arteko jarduera mistoak egitea ere.

Zehazki, maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duenak, 26. artikuluan 2. apartatuan adierazten du, programa espezifikoak eta lanean eta gizartean txertatzeko proiektuei dagokienez –deialdi honetan proiektu berezi izendatu ditugu–, prestakuntza-helburuak dituen arreta osoko proiektu baten bitartez, zenbait motatako esku-hartzeak beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin biltzen edo koordinatzen dituen proiektu baten bitartez pertsona langileak gizartean eta lanean txertatzera zuzendutako ekimenak direla, parte hartzen duten pertsonen enplegarritasuna hobetzea lortzeko asmoz.

Bestalde, arestian aipatutako 82/2012 Dekretuaren 14. artikuluan erreparatuz, Lana Aktibatze Zuzendaritzari dagokio enplegua, laneratzea, lan-merkatuko bitartekaritza eta orientazioa sustatzeko prozesuak planifikatzea eta diseinatzea. Modu berean, enpleguaren oinarriko araudian, Enpleguaren Legearen testu bateginean, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutakoan, enplegurako politika aktiboen printzipioetan langabezia dauden pertsonen, haien enplegarritasuna hobetzeko, tratamendu individualizatua eta espezializatua behar dutela, eta lanean ari diren pertsonen, berriz, enpleguaren kalitateari eusteko. Gainera, enpresek giza kapital, enplegu eta prestakuntzan dituzten beharrei erantzutea bermatu behar da.

Ondorioz, kontuan hartuz 82/2012 Dekretuaren 3. artikuluan b) apartatuan aipatutakoa, non, besteak beste, esaten den Lanbideek honako funtzio hau duela: «Enplegu-programak, enplegurako prestakuntza-programak eta autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzeko programak kudeatzea, dagozkion deialdi diruz lagungarrien onarpena eta izapidea barne. Enplegua sortzeko jarduera eta izaera ekintzailea sustatzeko helburua duten programak kudeatzea»; eta hori k) puntuarekin lotuz, hau da «Laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak zuzendutako enplegu-programa bereziak egitea.», dirulaguntza hauek sortu dira, eta ondorioz, Lanbideren hainbat zerbitzu deialdi bakar batean koordinatuko eta bateratuko dira, parte-hartzaileak lan-merkatuan sartzeko jarduera integral bat ziurtatze aldera.

Enplegurako lanbide-heziketa eta lana aktibatzea enplegu-zerbitzu publikoek beren zerbitzuen barruan langileei eskaintzen dieten bi tresna dira, erabakigarriak inondik ere, haiei lan-merkatuan sartzen laguntzeko edo enplegarritasuna hobetzeko. Ekintza horien bidez, pertsona hartzaileak

haren gaitasun profesionalak eta pertsonalak bereganatzea, hobetzea edo eguneratzea lortzen du, baita enplegarritasuna hobetzea eta lan-merkatuan sartzea ere.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatu, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera atxikita dagoenari, esleitzen dizkio enplegu-arloko, enplegurako prestakuntzarako eta lan-merkatuan sartzeko politika publikoen antolakuntza eta plangintza orokorra, sektoriala eta lurraldekoa.

Hortaz, deialdi honen bidez diruz lagundutako jardueren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei prestakuntza jasotzeko aukera ematen zaie, lana aktibatzeko ekintzekin batera, lan-merkatuan sartzea bermatzeko. Dirulaguntza lerro hori beste erakunde batzuen finantzaketa jadanik baduten proiektuak batera finantzatzeko dela nabarmendu behar da, eta helburua ahaleginak batzea eta koordinatzea, eta helburuak lortzea bermatzea dela.

Beraz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendariaren proposamenari jarraikiz, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak, 2019ko abenduaren 11n, lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako laneratzeko eta gizarteratze proiektu berezien garapenerako 2020ko ekitaldirako deialdia onartu zuen, maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan, zeinaren bidez Euskadiko Enplegurako Lanbide Heziketa honako baldintza hauen arabera arautzen baita:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da Proiektu Bereziak finantzatzera bideratutako 2019. urterako laguntzak arautzea, gizartean eta lanean txertatzeko edo langileen enplegarritasuna hobetzeko jarduera integralak diren aldetik, zenbait motatako esku-hartzeak beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin biltzen edo koordinatzen dituenak.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– 2020. urteko Proiektu Bereziak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 4.000.000 eurokoak dira, horietatik 2.000.000 euro 2020ko ordainketa-kreditukoak dira, eta 2.000.000 euro Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2021eko aurrekontuko konpromiso-kreditukoak dira.

2.– 2020ko ekitaldikoa finantzatzeko laguntzak ebatzeko, enplegu lagunduaren jardueri dago-kienez, kreditu nahikoa eta egokia egon behar da 2020. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, betiere Ogasun eta Herri Administrazioari sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikulua onorioetarako; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargutan egiteko diren gastu-espeditenteen aurretiazko izapidetzea araupetu zen.

3.– Guztira emango diren laguntzen bolumenak ez du gaindituko aipatutako kopurua edo hori eguneratzeatik ateratzen dena, baldin eta indarreko legeriarekin bat eginez aurrekontu-aldaketak onartzen badira, eta, hala bada, testuinguru hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez eman behar da argitara EHAAn.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

1.– Deialdi honen barruan diruz lagundu ahalko da proiektu berezien betearazpena. Proiektu bereziak izango dira prestakuntza-, orientazio- edo enplegu-ekintzak edo proiektu horietan parte

hartzen dutenen enplegarritasuna nabarmen hobetuko duen beste edozer neurri bateratuko dituzten proiektuak:

a) Prestakuntza ematea, bai Kualifikazio Profesionalen Sistema Nazionalaren berezko eskumen profesionalean, bai Profesionaltasun Ziurtagiriak eskuratzeko oinarriko eskumenetan, edo Prestakuntza Espezialitateen Katalogoan erregistratutako premiazko prestakuntzetan edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako beste prestakuntzetan. Lanpostuan bertan prestakuntza-ekintzak egiteko aukera ere egon daiteke, prestakuntza enpleguarekin txandakatuz.

b) Orientazio profesionaleko eta laneratzeko ekintzak, laneratze-ibilbide pertsonalizatu bat egi-tea sustatze aldera, parte hartzen duten pertsonen jarraipen pertsonala eta emaitzen ebaluazioa egiteko.

c) Enplegu-aukerak aztertzea, agente kontratatzaileak izan daitezkeenekin harremanetan jartzeko eta tartean sartzeko, lan-merkatuko beharrak identifikatuz eta proiektu berezian parte hartzen duten pertsonen kontratazioa bultzatuz.

d) Hartzaileen enplegarritasunaren hobekuntza bermatzeko helburua duen beste edozein jarduera.

2.– Dirulaguntza eskatzen den proiektu bereziak dirulaguntzak ezarritako aldi burutu beharreko proiektu osoaren % 10eko finantzazio ekonomikoa lortu beharko du gutxienez Administrazio Publikoaren eskutik edo irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen eskutik, eta azkeneko kasu horretan, erakunde eskatzailea ez den beste erakunde baten eskutik, eta betiere eskaera aurkeztu aurretik.

3.– Jarduerak garatu eta iraunarazteko adina aurrekontu-zuzkidura izan beharko da.

4.– Proiektu berezia 2020. ekitaldian hasi beharko da.

5.– Proiektu berezi bakoitzaren azken ekintza 2021eko irailaren 30a baino lehen amaitu beharko da, lantokietako prestakuntza praktikoaren edo, hala badagokio, lanekoak ez diren praktiken modulua barne.

6.– Partaidetza-proposamenek emaitzetan oinarritutako ikuspuntua izan beharko dute. Eskakizun hori proposamenaren helburu operatiboan eta emaitzen bidez kalkulaturako balioen arabera aztertuko da.

7.– 5. artikuluan aipatutako erakundeetako bakoitzak ezingo du parte hartu lau proiektu berezitan baino gehiagotan, aldi baterako enpresa-elkarteen bitartez aurkeztutako proiektu bereziak barne.

4. artikulua.– Hartzaileak.

Proiektu Berezien ekintzak laneratzeko zailtasun espezifikokoak dituzten pertsoneri zuzenduta daude:

1.– Langabeak; zehazki, kolektibo hauek:

a) Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemari arreta jaso duten pertsonak, Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen esparruan.

b) Gazteak; prestakuntza-defizita dutenei arreta berezia jarrita.

c) Emakumeak.

- d) Luzaroko langabeak.
- e) 45 urtetik gorakoak.
- f) Familia-erantzukizunak dituzten pertsonak.
- g) Desgaitasunen bat duten pertsonak.
- h) Arrisku egoeran edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak.
- i) Etorकिनak.

j) Lanean ari diren langileak edo langabeak, atzerrian bizi eta Euskadira lanera itzultzeko asmoa dutenak, itzultzeko borondatea duten pertsonen erregistroan izena emanda daudenak.

2.– Lanean ari diren pertsonak, lan-merkatuan jarraitzeko eta enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza espezifikoko beharrak dituztenak.

5. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Deialdi horren esparruan, honako erakunde hauek izan ahalko dira kofinantzaketaren onuradunak, horretarako eskaera egin ondoren:

- Foru-aldundiak eta foru-sektore publikoa.
- EAEko udalak eta tokiko sektore publikoko entitateak.
- EAEko sektore publikoko entitateak.
- EAEko tokiko edo eskualdeko garapenerako agentziak eta horiekin lotutako elkarteak.
- Prestakuntza-erakunde pribatu akreditatuak edo/eta dagokion Prestakuntza Erakundeen Erregistroan agertzen direnak.
- Hezkuntza Sailaren edo Ekonomiaren Garapen edo Azpiegitura Sailaren mendeko prestakuntza-erakunde publikoak.
- Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko EAEn bitarteko egokiak duten entitateak, baldin eta horien merkataritza-jarduera xede sozial baten mende badago, lehentasunez, eta azken hamar urteetan bere irabazien % 70 xede sozial horiek lortzean inbertitu badute.

Zuzendaritza kudeatzaileak hori egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen agiriak eskatu ahalko ditu, hala nola: ikuskapen-ziurtagiriak, emaitzen kontuak, irabaziak xede sozialetan aplikatu izanaren egiaztigiriak, etab.

2.– Noizean behin eta Proiektu Berezi bat zuzen garatzeko beharrezko baliabideak eta bitartekoak arrazionalizatzeko helburuarekin, aurreko atalaren barruan dauden erakundeen arteko lankidetzak ahalbidetuko da.

Eskaera formalizatzeko, Proiektu Berezi horretan parte hartzeko interesa duten erakundeek, bere eskaera onartuz gero, legez eratzeko konpromisoa hartu beharko dute honako modu hauekiko batean:

A) Aldi baterako enpresa-elkarte bat. Kasu horretan, erakundeetako bat aukeratu behar da elkarteak ordezkatzeko eta Lanbidez-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko, edo

B) Zuzenbide publikoko partzuergo bat, hainbat Administrazio Publikoren edo sektore publiko instituzionala osatzen duten erakundeen artean, edo erakunde pribatuen parte-hartzearekin.

3.– Erakunde onuradunek Proiektu Berezia bermearekin garatzeko behar diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak egiaztatu beharko dituzte.

4.– Aurreko paragrafoetan adierazitakoaz gain, erakunde onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, eskaera egiten duten erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela, dirulaguntza eman eta ordainketa bakoitza egin aurretik, eta, horretarako, ez du eskatzaileen baimenik beharko, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.3 artikulua xedatzen duenari jarraituz.

Hala ere, eskatzaileak berriaz aurka egin diezaioke egiaztatze horri, eta, halakorik egiten baldin badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

b) Deialdi honen barruan diruz lagundutako jarduerak egiteko, proiektuaren kostua baino zenbateko handiagoko dirulaguntzarik ez jasotea.

c) Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik ez jaso izana, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

d) Dirulaguntzak itzultzeko dagozkion ordainketa guztiak eginak izatea.

e) Ez egotea itzulpen- edo zigor-prozeduren eraginpean, EAEko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzaren bat dela eta.

f) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

5.– Enplegu-aukerak aztertzeko ekintzak (lan-eskaintzak hautematea, erregistratzea eta kudeatzea) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan jarduteko ahalmena duten Enplegu Agentziak egin ahalko dute, jarduera horiek burutze aldera, hala ezartzen baitu Lanbideko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 23ko Ebazpenean aurreikusitako prozedurak (2015-02-02ko EHAA, 21. zk.).

6.– Orientazioko ekintzak pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek edo pribatuek egin ahal izango dituzte, orientazioko jarduketa egitean hauek dituztenak:

a) Interneterako banda zabaleko sarbide eraginkorra, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren informazio-sistemarekin konektatzeko.

b) Tableta grafikoko periferiko bat, sinadura digitala jasotzeko euskarri modura. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko informazio-sistemara konektaturik egon behar du, eta, horrez gain, STU-430 modeloari edo baliokideari dagokion WACOM gailuarekin bateragarria izan beharko du, eta haren zehaztapen teknikoak bete behar ditu.

c) Telefono-linea finkoa, lokal espezifiko bakoitzarekin harremanetan jartzeko.

Orientazioko ekintzak egiten dituzten langileak teknikari gisa kontratatuko dira, eta unibertsitate-ikasketak amaituta izango dituzte.

7.– Erakunderen batek 2017ko edo 2018ko proiektu berezien ondorioz, dirulaguntzaren % 40 edo gehiago itzuli behar izan badu, ez direlako helburuak erdietsi edo diruz lagundutako jarduketak osorik gauzatu ez direlako, erakunde horiek ezingo dute deialdi honetan parte hartu.

6. artikulua.– Eskabideak eta dokumentazio osagarria aurkeztea.

1.– Eskaerak aurkeztu beharko dira deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean kontatzen hasita, 2020ko irailaren 18ra arte.

2.– Deialdi honen esparruko dirulaguntzak jasotzeko eskabideak elektronikoki izapidetuko dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aplikazio informatikoaren bidez (LAN-F). Aplikazio horretarako sarbiderik ez duten erakundeek www.lanbide.euskadi.eus webgunearen bidez eska dezakete.

3.– Dirulaguntzaren eskaera deialdiaren I. eranskinean jasotako modelo ofiziala erabiliz aurkeztuko da, prestakuntzako Lan-F aplikazio informatikoan eskura dagoena. Honako eremu hauek bete behar dira, eta luzerak modelo ofizialarekin bat etorri behar du:

1) Proiektu bereziaren datu orokorrak:

1.1.– Proiektuaren izena.

1.2.– Proiektua koordinatzeko harremanetarako pertsona(k).

1.3.– Hasiera- eta amaiera-data.

2) Lan-merkatuko premien diagnostikoa. Testuingurua eta zioak.

3) Proiektu bereziaren garapenaren deskribapena eta lan-metodologia.

4) Parte-hartzaileak aukeratzeko prozedura.

5) Helburu orokorra.

6) Helburu espezifikoak.

7) Helburu operatiboak eta emaitzakoak.

8) Oharrak.

9) Datuen babesa.

10) Erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena.

Dirulaguntza eskatzen den jarduketak eta proiektu bereziaren aurrekontua LAN-F prestakuntza-aplikazio informatikoan jasoko dira.

Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) 3.2 artikuluan aipatzen den kofinantzaketa egiaztatzeko dokumentazioa.

b) Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

c) 5.2 artikuluan aurreikusitako kasuan, legez ABEE edo zuzenbide publikoko partzuergoa eratzeko konpromisoa izatea.

4.– Eskaera bat aurkeztuko da dirulaguntza eskatzen den Proiektu Berezi bakoitzeko, eta eskaera bakoitza administrazio-espeditente bat izango da.

5.– Eskabideak ez baditu baldintza guztiak betetzen, interesdunari jakinaraziko zaio 10 egun balioduneko epea duela, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, izandako hutsune edo akatsa konpontzeko, edo aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko. Hori egin ezean, eskaera ezetsizat hartuko da. Ebazpen bidez ezetsiko da.

7. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendaria izango da prozedura kudeatzeko eta izapidetzeko organo eskuduna, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia, berriz, ebaztekoa.

2.– Emakidarako prozedura segidako konkurrentziaren arabera izango da. Eskabideek deialdi honetako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatutakoan, ordenan emango dira laguntzak, espeditentea osatzen den unearan arabera, jarduketa horietarako aurrekontu-zuzkidura amaitu arte, 2. artikulua 1. apartatua aurreikusitakoa betez.

Behin hasierako aurrekontu-zuzkidura eta luzapen posiblea amaituta, geratzen diren eskabideei ezezkoa emango zaie, eta EHAA-n argitaratuko da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

1) Eskaerak aztertzeke eta ebaluatzeko helburuarekin, izaera teknikoko ebaluazio-batzorde bat sortuko da. Batzordea honela osatuko da:

– Prestakuntzako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentako zuzendaria.

– Lan-aktibazioaren zuzendaria.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikari-profila duten lau pertsona, berariaz izendatuak; horietako batek idazkari-lanak egingo ditu, eta hitza adierazteko zein botoa emateko eskubidea izango du.

2) Balioespen Batzordeak ezaguera-arlo jakin batzuetako adituen aholkularitza eskatu ahalko du eskabideak aztertzeke orduan, ebaluatu beharreko irizpidearen edo azpi-irizpidearen izaerarengatik gomendagarria denean.

3) Eskabideak aztertzean, Balioespen Batzordeak agiri gehiago aurkezteke eskatu ahalko diete eskatzaileei aurkeztutako proposamena hobeto ulertzeke beharrezkoa bada.

4) Eskaerak deialdi honen 8. artikuluan zehaztutako irizpideen arabera balioetsi ondoren, Balioespen Batzordeak aurkeztutako eskabideei buruzko ebazpen-proposamena egin eta igorriko dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiar.

5) Agindu honetan aurreikusi gabeko alderdi guztietarako, Balioespen Batzordea kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruzko arauetara lotuko zaie, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak Atariko titulua II. kapituluaren hirugarren atalean xedatutakoaren arabera.

3.– Balioespen Batzordeak egindako ebazpen-proposamena ikusirik, Lanbideko zuzendari nagusiak Emate-erabakia edo laguntza ukatzea aginduko du Proiektu Bereziak egiteke, eta agindu hori banaka jakinaraziko da.

4.– Ebazpena LAN-F aplikazio informatikoaren bidez jakinaraziko da, eta 5 egun balioduneko epea emango da, emate-erabakiaren jakinarazpenetik zenbatzen hasita, erakunde onuradunek dirulaguntza onar dezaten. Epe hori igaro ondoren dirulaguntza onartu ez bada, dirulaguntza baztertu dela ulertuko da.

Gainera, 5.2 artikuluan aipatutako erakunde onuradunak ABEE edo zuzenbide publikoko partzuergo eratu beharko dira legez 15 egun balioduneko epe barruan, emate-erabakia jakinarazten den egunetik aurrera zenbatzen hasita hori ere. Epe hori igaro ondoren legez eratu ez bada, dirulaguntza baztertu dela ulertuko da.

5.– Eskatera onartzen ez bada, ebazpenak horren arrazoi zehatzak adieraziko ditu, ezarritako eskakizun eta balioespen-irizpideetan oinarrituta.

Emateko ebazpenak honako eduki hauek izango ditu, gutxienez:

- Erakunde onuradunaren izena eta onartutako jarduketa-ildoen izendapena.
- Proiektu Bereziaren helburua eta indarraldia.
- Onartutako jarduketa-ildoen deskribapen laburra.
- Laguntzaren zenbatekoa.
- Justifikazio- eta ordainketa-sistema.
- Ikuskapen-, jarraipen- eta kontrol-sistema.

6.– Eskabideak ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskabidea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera. Epe hori igarotakoan erakunde interesdunari ebazpena jakinarazi ez bazaio, dirulaguntzaren eskaera baietsi dela ulertuko da.

7.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenek amaiera ematen diote administrazio-bideari, eta, haien aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiar, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

8.– Publikotasunaren printzipioa betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaz emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zer enpresak jaso duten dirulaguntza deialdi honen babesean eta zenbateko laguntza jaso duten.

9.– Onuradunei dirulaguntzak eman eta, hala dagokionean, ordaintzea baldintzapean dago; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetze-fasean dagoen edozein itzulketa- edo zigor-prozedura amaitzearen baldintzapean.

8. artikulua.– Eskabideak balioesteko irizpideak.

1.– Proiektu Bereziak garatzeko dirulaguntzak amaierako puntuazio baten arabera emango dira. Puntuazio hori ondoren zehazten diren ebaluazio-irizpideen balioespenean eskuratutako puntuen batuketaren emaitza izango da:

a) Proiektuaren hartzaile-multzoaren enplegarritasunean izandako hobekuntzaren inpaktua. Prestakuntza-ibilbideak eskuratzeko %-a, zein erakundeak agindutako elkarren segidako

prestakuntzetan egindako sartzeen edo izen-emateen %-a, I. eranskinaren 7. puntuaren helburu operatiboen arabera balioetsiko dira.

Hiru aldagai oinarritzat hartuta jokatu da:

– Proiektuak lortutako prestakuntza-ibilbideen ehunekoa. 1etik 15era arteko puntuazioa.

Aurreiazko konpromisoa	Ibilbidea amaitzen duten parte-hartzaileen ehunekoa	Puntuak
Amaitutako prestakuntza-ibilbideak	> % 70	15
Amaitutako prestakuntza-ibilbideak	> % 60 eta <= % 70	13
Amaitutako prestakuntza-ibilbideak	> % 45 eta <= % 60	10
Amaitutako prestakuntza-ibilbideak	> % 30 eta <= % 45	8
Amaitutako prestakuntza-ibilbideak	> % 15 eta <= % 30	5
Amaitutako prestakuntza-ibilbideak	=> % 5 eta <= % 15	3

– Proiektuak lortutako ibilbide profesionalen ehunekoa. 1etik 15era arteko puntuazioa. Irizpide horren arabera, lortu daitekeen puntuazio maximoa, kontratuen iraupena kontuan harturik, 15 puntuko izango da.

Puntu horiek jardunaldi osoko kontratuenak izango dira, eta lanegunaren iraupenaren arabera murriztuko dira proportzionalki. Parte-hartzaileen lanegunak ez dira metagarriak izango eta ez dute puntuatuko % 50 baino gutxiago badira.

Aurreiazko konpromisoa	Kontratuaren iraupena	Kontratututako parte-hartzaileen ehunekoa	Puntuak
Baietsitako kontratazioak	Mugagabea	> % 45	15
		> % 35 eta <= % 45	13
		> % 25 eta <= % 35	11
		> % 15 eta <= % 25	9
		> % 5 eta <= % 15	6
		=> % 1 eta <= % 5	4
Baietsitako kontratazioak	>= 6 hilabete	> % 45	14
		> % 35 eta <= % 45	12
		> % 25 eta <= % 35	10
		> % 15 eta <= % 25	8
		> % 5 eta <= % 15	5
		=> % 1 eta <= % 5	3
Baietsitako kontratazioak	< 6 hilabete >= 3 hilabete	> % 45	12
		> % 35 eta <= % 45	10
		> % 25 eta <= % 35	8
		> % 15 eta <= % 25	6
		> % 5 eta <= % 15	4
		=> % 1 eta <= % 5	2
Baietsitako kontratazioak	< 3 hilabete >= 1 hilabete	> % 45	10
		> % 35 eta <= % 45	8
		> % 25 eta <= % 35	6
		> % 15 eta <= % 25	4
		> % 5 eta <= % 15	2
		=> % 1 eta <= % 5	1

– Proiektuan emandako elkarren segidako prestakuntzen izen-emateen ehunekoa. 1etik 10era arteko puntuazioa.

Elkarren segidako prestakuntza zera izango da, parte-hartzaileak parte hartu duen proiektua amaitu ondoren, lan-munduan sartzeko garapen pertsonala eta profesionala ematen diona, eta proiektuaren justifikazioa bidaltzeko gehieneko epearen barruan gauzatzen dena eta ekintzari helduko diola frogatzen duen baliozko egiaztagiriarekin egiazta daitekeena.

Aurretiazko konpromisoa	Prestakuntzak kateatzen dituzten parte-hartzaileen ehunekoa	Puntuak
Prestakuntza kateatuetan egindako izen-emateak	> % 45	10
Prestakuntza kateatuetan egindako izen-emateak	> % 35 eta <= % 45	9
Prestakuntza kateatuetan egindako izen-emateak	> % 25 eta <= % 35	7
Prestakuntza kateatuetan egindako izen-emateak	> % 15 eta <= % 25	4
Prestakuntza kateatuetan egindako izen-emateak	> % 5 eta <= % 15	2
Prestakuntza kateatuetan egindako izen-emateak	=> % 1 eta <= % 5	1

b) Erakunde eskatzaileak 2017an eta 2018an eginiko proiektu berezien enplegarritasun-indizea. 1etik 10era arteko puntuazioa.

Enplegarritasun-indizea tasa hauek osatzen dute:

Enplegarritasun-indizea = (Prestakuntzako arrakasta-tasa x p1) + (Besteren konturako laneratzearen tasa x p2) + (Parte-hartze anitzeko tasa x p3),

Hona hemen kontzeptu horien azalpenak:

– Prestakuntza-ekintzaren arrakasta-tasa: Prestakuntza-ekintzak emaitza positiboz amaitzen duten pertsonen kopurua, proiektu bereziko guztizko parte-hartzaile kopuruaren gainean.

– Besteren konturako laneratzearen tasa: Prestakuntza-jarduera amaitu eta sei hilabeteren barruan besteren konturako kontratu bat lortu duten pertsonen kopurua.

– Parte-hartze anitzeko tasa: Prestakuntza-ibilbide bat egiten duten pertsonen kopurua; hau da, ikastaroa amaitu ondorengo sei hilabeteetan enplegurako lehen prestakuntza-jarduera bigarren batekin lotzen duten pertsonen kopurua.

– p1, p2 eta p3, espezialitatearen kualifikazio-mailaren arabera kalkulaturik, tasa bakoitzari emandako balioak dira.

Tasak haztatu egiten dira espezialitate-motaren eta horien kualifikazio-mailaren arabera. Hartara, laneratzearen tasak pisu handiagoa izaten du espezialitatearen kualifikazio-maila zenbat eta handiagoa izan, behar beste gaitasun ematen baitituzte lanpostuak betetzeko, eta, horrenbestez, baita lan-merkatuan sartzeko ere. Gaitasun giltzarriekin, zeharkako gaitasunekin eta gizartean eta lanean txertatzeko gaitasunekin zerikusia duten espezialitateen kasuan, parte-hartze anitzeko tasak pisu handiagoa hartzen du, prestakuntza kualifikatzailea baino lehen gauzatzen den prestakuntzat hartzen baita, prestakuntza-ibilbide luzeago baten esparruan; edo, bestela, zeharkako espezialitateen kasuan, prestakuntza arautuaren, hasierako prestakuntzaren edo profesionaltasun ziurtagirien prestakuntza osagarri gisa.

Tasa bakoitzaren pisua, espezialitatearen kualifikazio-mailaren arabera	Arrakasta-tasa (p1)	Laneratze-tasa (p2)	Parte-hartze anitzeko tasa (p3)	Guztira
Gaitasun giltzarriak eta zeharkako gaitasunak	45	10	45	100
Gizartean eta lanean txertatzea	40	10	50	100
Kualifikatzaileak (egiaztagarriak edo ez), 1. maila	50	20	30	100
Kualifikatzaileak (egiaztagarriak edo ez), 2. maila	40	40	20	100
Kualifikatzaileak (egiaztagarriak edo ez), 3. eta 4. mailak	40	50	10	100

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren datu-baseetatik ofizioz ateratzen dira prestakuntza-ekin-tzaren arrakasta-tasa, besteren konturako laneratzearen tasa eta parte-hartze anitzeko tasa. Erakunde eskatzaileak 2017ko eta 2018ko deialdietan gauzatutako proiektu berezien gaineko datuak soilik aintzat hartuko dira.

Erakunde eskatzaileek proiektu bereziak gauzatu ez badituzte aurreko bi deialdien babesean, 6 puntu emango zaizkie, proiektua egokia dela frogatzeko aukera izan dezaten.

Erakunde eskatzailea aldi baterako enpresa-elkarte bat bada, irizpide horri erreparatuko zaio erakunde berek osatutako ABEEK proiektu bereziak gauzatu bazituen 2017ko eta 2018ko deialdie-tan. Osterantzean, puntuazioa aurreko paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriko da.

c) Proiektuaren kalitatearen eta koherentziaren berariazko balioespena, eskaeran oinarritzen dena. 1etik 30era arteko puntuazioa.

Ebaluatu beharreko kontzeptuak	Puntuak
Beharren diagnostikoa eta parte-hartzaileak aukeratzeko protokoloa: <ul style="list-style-type: none"> Premien diagnostikoa eta parte-hartzaileak aukeratzeko protokoloak lan-merkatuaren, eskualdearen, talde hartzailearen eta abarren premia espezifikoak dituzte oinarritzat. 	Gehienez 5
Proiektu Bereziaren garapenerako azalpena: <ul style="list-style-type: none"> Hartzaileen beharretarako lan-metodologia egokia aurkeztu du: 3 puntu Azpiegitura pertsonalak eta materialak egokiak dira, eta nahikoak helburuak lortzeko: 2 puntu Arriskuen eta aukeren azterketa fidagarria egin da: 2 puntu 	Gehienez 5
Prestakuntza-ibilbidea <ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza kualifikatzailea ematen du: 4 puntu Enpleguarekin txandakatutako prestakuntza-aukera aurkezten du: 4 puntu Prestakuntza-ekintza gakoak eta zeharkakoak ditu: 2 puntu 	Gehienez 10
Lan-aktibazioko ibilbidea <ul style="list-style-type: none"> Orientazio-profesionaleko eta laneratze-ekintzak aurkezten ditu parte-hartzaileentzat: 4 puntu. Lan-merkatua aztertzeko eta enpresetan hutsik dauden postuak bilatzeko estra-tegia bat aurkeztu du: 4 puntu Proiektuan parte hartzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2019ko orien-tazio-erakunde kolaboratzaile batek: 2 puntu 	Gehienez 10

d) Proiektu Berezien erakunde eskatzaileak 2017ko eta 2018ko deialdian gauzatutako bete-a-razpena. 1etik 10era arteko puntuazioa.

2017ko eta 2018ko Proiektu Berezien deialdian aurretiaz gauzaturako betearazpenaren %	Puntuak
> 90 eta <= % 100	10
> % 70 eta <= % 90	8
> % 60 eta <= % 70	6
> % 50 eta <= % 60	4
<= % 50 edo parte hartu ez duten erakundeak	2

Proiektuen betearazpen-ehunekoa kalkulatzeko, batezbestekoa lortu behar da, emandako zenbaterako eta gauzaturako proiektuaren edo proiektuen justifikazioa egitean benetan likidatu den zenbaterako kontuan hartuz.

Erakunde eskatzaileek proiektu bereziak gauzatu ez badituzte aurreko bi deialdien babesean, 6 puntu emango zaizkie, proiektua egokia dela frogatzeko aukera izan dezaten.

Erakunde eskatzailea aldi baterako enpresa-elkarte bat bada, irizpide horri erreparatuko zaio erakunde berek osaturako ABEEK proiektu bereziak gauzatu bazituen 2017ko eta 2018ko deialdietan. Osterantzean, puntuazioa aurreko paragrafoan xedaturakoarekin bat etorriko da.

e) Proiektu Berezia zuzendu den talde hartzailearen balioespena. 1etik 10era arteko puntuazioa.

Hartzaileak	Puntuazioa
Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren jasotzaileak	Gehienez 10
4. artikulua 1. puntuan jasotako gainerako kolektiboak	Gehienez 8
Bestelakoak	Gehienez 4

2.– Erakunde eskatzaileak 50 puntu lortu beharko ditu guztira eta 18 puntu gutxienez artikulua honen 1. puntuko c) irizpidean dirulaguntza eskuratu ahal izateko. Puntuazio hori lortzen ez duten proiektu berezien eskaerak gaitzetsi egingo dira.

9. artikulua.– Parte-hartzaileen aukeraketa.

1.– Proiektu Berezi bakoitzeko parte-hartzaileen aurre-aukeraketa egiteko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Proiektu Berezian parte hartzeko deitutako enplegu-eskatzaileen artean aukeratu du; parte-hartzaile horiek 4. artikuluan deskribatutako talderen batean parte hartu beharko dute, eta eskaeraren sarrera-profilean deskribatutako ezaugarrien bat izan.

2.– Proiektu Berezietan parte hartzeko ikasleen azken aukeraketa erakunde onuradunak egingo du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bidalitako hautagaiak oinarri harturik. Hortaz, erakunde emailea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Prestakuntza Kudeaketaren (LAN-F) aplikazioan sartu ahalko da izena eman duten hautagai guztien informazioa eskuratzeko, eta hautaketa-prozesua programaturako ekintzen hasiera baino nahiko lehenago eta behar besteko bermearekin egingo du.

Behar den guztietan eta proiektuak arrakasta duela bermatzeko, hautaketa-proba bat egingo da Lanbideko teknikariek aurretiaz adostu ondoren, ekintzak ondo aprobetxatzen direla eta taldea maila akademikoan homogeneoa dela ziurtatzeko. Proba hori LAN-F aplikazioaren dagokion atalean erantsiko da.

3.– Proiektu Berezian sartzeko baldintzak betetzen dituztenen artean, lehentasun-ordena bat ezarriko da:

– Lehenik, eta lehentasun maila berean, 4. artikuluan deskribatutako taldeetakoak diren eta 6.3.3 artikulua eskararen sarrera-profilarekin lotzen diren langabetuak; gizonen eta emakumeen artean proportzio bera dagoela ziurtatuko da.

– Bigarrenik, lana dutenak. Kasu horretan ere, ziurtatuko da gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren gaineko araudian adierazitakoa betetzen dela.

4.– Hautaketa amaitu ondoren, erakunde onuradunek hautaketa horren emaitza jakinarazi beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, LAN-Fren bidez.

5.– Erakunde onuradunak hautatuak izan direnen eta Proiektu Berezian parte hartzeko erreserba-egoeran gelditzen direnen zerrendak erakutsi behar ditu bere instalazioetan, prestakuntza-ekintzak abiarazi baino 24 ordu lehenago gutxienez eta hautagaiei alde aurretik adierazi zaien leku batean. Horrekin batera, Proiektu Berezia non, noiz eta zer ordutan egingo den adierazi behar dute.

6.– Proiektu berezia kofinantzatua izan bada eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik hasi bada, proiektu berezian enplegu-eskatzaile edo beste hainbat zerbitzuren eskatzaile moduan izena ematea eskatuko du Erakunde Publikoak.

10. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Dirulaguntzaren zenbateko maximoa izango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako proiektu bakoitza osatzen duten ekintzen prezio maximoaren eta kofinantzaketaren arteko aldea.

2.– Ekintza-mota bakoitzaren dirulaguntza kopurua honako zenbateko hauen arabera kalkulatu da:

A) Prestakuntza-ekintzen kopuruak ezingo ditu honako modulu ekonomiko maximoak gainditu:

– Prestakuntza presentziala: 110 euro/ordu/talde, betiere parte-hartzaile kopurua 14 edo 14 baino handiagoa bada.

Parte-hartzaile kopurua 14 baino txikiagoa bada, modulu ekonomikoa ezarriko da, hau da, 8 euro parte-hartzaile eta prestakuntza-ordu bakoitzeko.

Prestakuntza-ekintzak gehienez ere 20 parte-hartzaile eta gutxienez 10 dituztenen arteko taldeentzat onartuko dira. Prestakuntza-ekintzak ezin izango dira hasi 10 parte-hartzaile baino gutxiago badago.

Salbuesenez, eta prestakuntzaren kalitatea bermatzeko helburuarekin, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimena eman ondoren, prestakuntza-ekintzetan parte hartzen dutenen kopurua 8ra arte murriztu ahalko da, gehienez ere, Proiektua egingo duen taldea pertsona desgaituekin osatuta badago.

– Teleprestakuntza: 1,61 euro/ordu/ikasle.

Dirulaguntzaren zenbatekoa Lanbideek baimendutako jardueren gastu zuzenak eta zeharkakoak ordaintzera bideratuko da.

B) Lan-aktibazioarekin eta enplegu-aukerak aztertzearekin lotutako ekintzetan, ezin dira zenbateko hauek gainditu:

– Enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak, eta laguntzeko prozesuak garatzeko dirulaguntzen gehienezko zenbatekoa orduko 34 eurokoa izango da, jarduera horri lotutako gastu arrunt zuzenetara eta zeharkakoetara zuzenduko direnak.

– Enplegu-aukerak aztertzeko ekintzen zenbatekoa 140 eurokoa izango da, lortutako kontratua 3 hilabetekoa denean eta % 50eko laneguna duenean. Ordaindu beharreko zenbatekoa handitu egingo da honako taula honetan definitutako arrazoiak gertatzen direnean:

Kontratuaren iraupena	Ianaldiaren %	Kontratuaren bidez diruz lagundutako zenbatekoa
>= 3 hilabete eta < 4 hilabete	>= 50 eta < 60	140 euro
	>= 60 eta < 70	150 euro
	>= 70	160 euro
>= 4 hilabete eta < 5 hilabete	>= 50 eta < 60	150 euro
	>= 60 eta < 70	160 euro
	>= 70	170 euro
>= 5 hilabete eta < 6 hilabete	>= 50 eta < 60	160 euro
	>= 60 eta < 70	170 euro
	>= 70	180 euro
>= 6 hilabete	>= 50 eta < 60	170 euro
	>= 60 eta < 70	180 euro
	>= 70	190 euro
Mugagabea	>= 50 eta < 60	180 euro
	>= 60 eta < 70	190 euro
	>= 70	200 euro

Finantzaketa izan dezaketen azterketa-ekintzak proiektuaren parte-hartzaileen lan-kontratuen ondoriozko eskaintzaren atzemate-, erregistro eta kudeaketa-jarduerak izango dira.

C) Enplegarritasuna hobetzea ziurtatzen duten gainerako ekintzei dagokienez, gehieneko kostua 34 euro/ordu izango da.

3.– Proiektu Bereziaren balioespenean guztira 50 puntu dituzten eta proiektuaren kalitatearen eta koherentziaren inguruko 8.1 artikulua c) irizpidean 18 puntu dituzten erakundeek Lanbideri eskatutako laguntzaren kopuru osoa jasoko dute.

4.– 5. artikuluan aipatutako erakunde bakoitzak ezingo du jaso guztira deialdi honen 2. artikulua 1. puntu adierazitako baliabide ekonomikoen % 10 baino gehiagoko dirulaguntza, parte hartzen duen Proiektu Berezien kopurua alde batera utzita.

5.– Proiektu bakoitzeko dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da proiektu horren kostuaren % 90 baino handiagoa izan.

11. artikulua.– Diruz lagunduko ekintzak gauzatzea.

1.– Erakunde onuradunek diruz lagundutako ekintzen zati bat edo ekintza guztiak azpi-kontratu ahalko dituzte.

Kontratatzen baditu, onuradunak, gutxienez ere, hiru eskaintza eskatu beharko ditu kontratuen zenbatekoak munta txikiko kontratuen zenbatekoa, azpikontratazioaren unea indarrean dagoen kontratu-araudian aurreikusitakoa, gainditzen duenean, ezaugarri bereziengatik merkaturatu zerbitzua ematen duen nahikoa erakunde ez bada. Aurkeztutako eskaintzen arteko aukera eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da eta berariaz justifikatuko da memoria batean, aukeratutakoa ez bada proposamen ekonomiko onena.

Era berean, erakunde onuradunak aurrez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren baimena eskatu beharko du hirugarrenekin azpikontratutako prestakuntza-jardueraren zenbatekoa dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20tik gorakoa denean eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa denean edo kontratua hari lotuta dauden pertsona edo erakundeekin sinatuko denean. Azken kasu horretan, gainera, kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egin behar da. Horretarako, baimen-eskaerarekin batera, sinatu nahi den kontratuaren kopia aurkeztuko da, eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebatziko du. Baimena eman dela ulertuko da, hori aurkeztu eta 20 eguneko epearen barruan ez bada esanbidez ebazten.

Dena den, atal honetan aurreikusi ez denari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. eta 31.3 artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da zuzenean.

2.– Prestakuntza-ekintzen arabera, dirulaguntzaren prestakuntza-erakunde onuradunek zuzenean gauzatuko dituzte prestakuntza-ekintza horiek eta ezingo dute hirugarrenekin kontratatu.

Diruz lagundutako prestakuntza emateko irakasleak kontratatzea ez da azpikontrataziotzat joko. Irakasleak kontratatzea pertsona fisikoak kontratatzea soilik dela ulertzen da.

12. artikulua.– Dirulaguntzak ordaintzea.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketa Erakunde onuradunari emandako kopuru totalaren % 50 izango da, proiektua egiteko dirulaguntza emango zaiolako ebazpena jakinarazi ondoren.

b) Bigarren ordainketa gainerako kopurua izango da, proiektua osatzen duten ekintzak egin direla eta helburu operatiboak lortu direla justifikatu ondoren.

Lehenengo ordainketa 180.303,63 euro baino handiagoa bada, erakunde onuradunak bankuko abala aurkeztu beharko du, lotura-baimenarekin batera jakinarazitako jarraibideei jarraituz.

13. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta likidazioa.

1.– Proiektu bakoitza amaitzen denean, erakunde onuradunek jarduera-memoria bat aurkeztu beharko dute, honako hau jasoko duena:

a) Proiektuaren betearazpenaren deskribapen-txostena, Proiektuan aurkeztutako helburu orokorren, berariazkoen eta operatiboaren betetze maila xehatuz.

b) Zenbatekoaren egiaztagiria, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez emandako dirulaguntzaren aurretik eskuratutako Administrazio Publikoaren edo erakunde pribatuaren finantzaketaren ezarpena, 3.2 artikuluan aipatzen dena.

2.– Diruz lagundutako proiektu berezia osatzen duten ekintzei dagokien likidazioa diruz lagundu daitekeen proiektuko jarduera bakoitzaren arabera egingo da, benetan egikaritu diren ekintzei dagokionez, eta lortutako helburu operatiboaren arabera proportzionaltasunean. Likidazioak ez du inola ere gaindituko hasiera batean onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa.

a) Prestakuntza-ekintzak egiteagatik eskuratutako laguntzen likidazioa hasitako taldeen eta prestakuntza-ekintzen emaitzen arabera egingo da; emaitza horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren LAN-F prestakuntza-aplikazioko kalifikazioen eta datuen bidez neurtuko dira.

b) Orientazio-ekintzak egiteagatik jasotako laguntzen likidazioa egiteko, artatutako pertsona-kopurua eta eskainitako eta horretarako prestatzen den aplikazioan justifikatutako ordu-kopurua hartuko dira kontuan.

c) Azterketa-ekintzak, hau da, dakion eskaintza hautematea, erregistratzea eta kudeatzea egitearen ondoriozko laguntzen likidazioa egiteko, kontratu batean amaitzen diren laguntzak hartuko dira kontuan, baita kontratatutako pertsona Proiektu Bereziaren parte-hartzailea izan ote den ere, betiere laguntza horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lan-bitartekaritzaren aplikazioan kudeatu badira.

d) Enplegarritasuna hobetzeko jarduerak egitearen ondoriozko laguntzen likidazioa benetan gauzatutako orduen arabera egingo da; hori egiaztatzeke, beharrezko egiaztagiria aurkeztuko dira.

3.– Proiektu bereziaren eta proiektu horren jarduera guztien justifikazioa 2 hilabeteko epean aurkeztu behar da proiektua amaitzen denetik zenbatzen hasita, eta epemuga 2021eko urriaren 31 izango da.

14. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Erakunde onuradunaren betebeharrak izango dira, deialdi honetako artikuluetan adierazitakoez gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan oro har ezarritakoak, bai eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 50.2 artikuluan jasotakoak ere, eta, bereziki, honako hauek:

a) Dirulaguntza eman den helbururako erabiltzea.

b) Solaskide moduan jardutea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean.

c) Lanbiden izena emandako pertsonen hautaketa egitea.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren kofinantzaketa aipatzea laguntza horien berri emateko material eta ekintza guztietan.

e) Diruz lagundutako jardueren xedea edo nondik norakoa nabarmen aldatzen duen edozein gertaera jakinaraztea, bai eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako edozein inguruabar objektiboren nahiz subjektiboren aldaketa ere.

f) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan jardutea diruz lagundutako jarduera egiaztatzeke, ikuskatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko, ofizioz edo alde batek eskatuta; eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztatze- eta kontrol-jardunen eraginpean jartzea.

g) Deialdi hau jakinarazi eta zabaltzeko, enpresak erabiliko duen dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, hizkuntza ez sexista erabili beharko du, emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro saihestu beharko du, eta irudi jakin bat sustatu beharko du, balio hauek izango dituen: berdintasuna, emakume eta gizonen presentzia orekatua, aniztasuna, ardua partekatua, eta rol eta genero identitate plurala.

h) Dirulaguntzaren erakunde onuradunak Proiektu Bereziaren ekintza guztien gauzatzeaz eta kudeaketaz arduratu behar du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntzako aplikazio informatikoa erabiliz.

i) Erakunde onuradunak Proiektu Singularren ekintzetan parte hartzen duten pertsonen helarazi beharko diete 18. artikuluan aipatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzko informazioa.

15. artikulua.– Dirulaguntzaren aldaketa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, hala nola benetan gauzatutako ekintza-kopurua, laguntza betearazteko gauzatutako benetako ordu-kopurua edo bete gabeko eta agindutako helburu operatiboen ehunekoa, emandako dirulaguntza alda daiteke, dirulaguntzen onuraduna izateko deialdi honen 3.2 eta 5. artikuluetan ezarritako baldintza minimoak salbu. Baldintzen aldaketa horren ondorioz dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, hasiera emango zaio itzultzeko prozedurari.

16. artikulua.– Betebeharrak ez betetzea eta laguntza itzultzeko prozedura.

1.– Ezin izango da eskatu dirulaguntza ordaintzea, eta hala badagokio, jasotako kopuruak erabat edo partzialki itzuli beharko dira, eta dirulaguntza ordaintzen den unetik aurrera ezarri daitezkeen berandutze-interesak eskatuko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikuluan, bai eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 53.1 artikuluan aurreikusten diren kasuetan. Bereziki, honako hauek:

a) Jarduera egin izana eta laguntza ematea edo baliatzea baldintzatzen duten baldintza eta betekizunak bete izana justifikatu beharra ez betetzea.

b) Dirulaguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

c) Jarraipen- eta kontrol-jardunak ukatzea edo oztopatzea.

d) Diruz lagundutako ekintzak egikaritzeko baldintzei buruz datu faltsuak ematea, errealitatea-rekin bat ez datozenak.

e) Dirulaguntzaren justifikazioari buruz aurkeztutako datuak edo dokumentazioa errealitatearekin bat ez etortzea.

f) Deialdi honetan zehaztutako beste edozein betebeharrak, baldintza edo betekizun ez betetzea.

2.– Justifikatutako arrazoirik ez dagoenean, balizko ez betetzeak neurtuko dira, honako irizpide hauen arabera:

Emaitzak neurtzeko, kontuan hartuko dira, batetik, kualifikazioan erdietsitako helburuen ehunekoa, eta, bestetik, enpleguaren alorrean erdietsitako helburuena.

Kualifikazio-helburuak egiaztatzeko, Lan-F prestakuntza-aplikazio informatikoaren bidez kudeatzen diren prestakuntza-ekintzen emaitzei erreparatuko zaie.

Proiektu bereziak erdietsitako kualifikazio-helburuen %	Ez-betetzea	Proiektuko prestakuntza-jardueretarako emandako dirulaguntza murriztea
\geq % 70	Partziala	0
\geq % 60 eta < % 70	Partziala	% 25
\geq % 50 eta < % 60	Partziala	% 40
\geq % 40 eta < % 50	Partziala	% 50
< % 40	Guztira	% 100

Enpleguaren alorreko helburuak egiaztatzeko, Lan-F prestakuntza-aplikazio informatikoan parte-hartzaile bakoitzari buruz jasotzen diren kontratuen gaineko datuak baliatuko dira.

Proiektu bereziak erdietsitako enplegu-helburuen %	Ez-betetzea	Proiektuko azterketa- eta orientazio-ekintzetarako zein beste ekintzetarako emandako dirulaguntza murriztea
\geq % 70	Partziala	0
\geq % 60 eta $<$ % 70	Partziala	% 25
\geq % 50 eta $<$ % 60	Partziala	% 40
\geq % 40 eta $<$ % 50	Partziala	% 50
$<$ % 40	Guztira	% 100

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta laguntza jaso duen erakundeari jakinaraziko dio, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, jakinaraziko dio hamabost eguneko epea duela egokituz jotako alegazioak edo egiaztagiria aurkezteko.

4.– Alegazioak aurkeztu ondoren edo alegazio horiek egiteko epea igaro ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak ebazpena emango du.

Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

5.– Ebazpenean ez-betetzereen bat izan dela iritiz gero, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduzat emango da, eta, hala badagokio, ebazpena jakinarazten denetik hasita gehienez bi hilabeteko epean, dagozkion diru-kopuruak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuli beharra ekarriko du. Epe hori borondatezko epetzat joko da.

Itzulketa borondatezko aldi egiten ez bada, itzuli beharrekoak premiamendu bidez berreskuratzeke izapideak hasiko dira.

17. artikulua.– Beste dirulaguntza batzuk aldi berean jasotzea.

Kofinantzaketa nahitaezkoa denez, agindu honetan jasotako dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu bera izan eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk eman ditzakeen dirulaguntza guztiekin, baldin eta horrek gehiegizko finantzetarik ez badakar. Halakorik gertatuz gero, dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da dirulaguntza.

Bestetik, deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak ez dira bateragarriak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuen babespean kontzeptu berarengatik edo helburu bererako emandako beste edozein motatako dirulaguntzekin edo laguntzekin edo diru-sarrerekin.

18. artikulua.– Izaera pertsonaleko datuen tratamendua.

Datu pertsonalak babesteari dagokionez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (EB 2016/679 Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide Digitalen Bermeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoari jarraituko dio. Jasotako datu pertsonalak «Enplegu eta enplegurako prestakuntzako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren parte izango dira, Lanbideren eskumenekoak diren enplegu-politika aktiboekin lotutako dirulaguntzak kudeatzea eta kontrolatzea helburu duena, baita iruzurraren jazarpena eta helburu estatistikoak ere. Jasotako datuak beharrezkoak dira Lanbideren esku dauden botere publikoak

baliatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta, gainera, arlo horretan eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte. Horretarako, idazki bat igorri beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Datuen babesari buruzko informazio gehiago hemen: http://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/informacion/condiciones_de_uso_y_politica_de_privacidad/

19. artikulua.– Dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko arauak.

Dirulaguntzen deialdi honi honako arau hauetan bildutako dirulaguntzei buruzko araubide juridikoa aplikatu behar zaio: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa). Era berean, arau hauetan xedatutakoa ere aplikatuko da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duena– eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua (horretan arautzen dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta bertan ezartzen dira horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak).



I. ERANSKINA

PROIEKTU BEREZIAREN DIRULAGUNTZA-ESKABIDEA 2020

1. PROIEKTU BEREZIAREN DATU OROKORRAK

1.1. PROIEKTUAREN IZENA


1.2. PROIEKTUAREN KOORDINAZIOARAKO HARREMANETARAKO PERTSONA/K


EGINKIZUNAK	IZEN-ABIZENAK	HARREMANETARAKO TELEFONOA	POSTA ELEKTRONIKOA
PROIEKTUAREN ARDURADUNA			
PRESTAKUNTZAREN ARDURADUNA			
TXERTATZEAREN ARDURADUNA			


1.1. GAUZATZE-ALDIA

HASIERA D. AMAIERA D.

2. LAN-MERKATUAREN BEHARREN DIAGNOSTIKOA: TESTUINGURUA ETA MOTIBAZIOA (lotu prestakuntza eta lan-merkatuko premiak, eskualdeko premiak, kolektibo hartzailea, etab.)










3. PROIEKTU BEREZIAREN GARAPENAREN DESKRIBAPENA


Kolektibo hartzailea


Proiektua osatzen duten ekintzak

Prestakuntza ekintzak	<input type="checkbox"/>	Entitate gauzatzailea:	
Orientazio ekintzak	<input type="checkbox"/>	Entitate gauzatzailea:	
Lan-merkatua aztertzeke ekintzak	<input type="checkbox"/>	Entitate gauzatzailea:	
Enplegarritasuna hobetzeko beste ekintzak	<input type="checkbox"/>	Entitate gauzatzailea:	

LAN-METODOLOGIA (azaldu proiektu bereziko taldearekin zer lan-metodologia erabiliko den, prestakuntza-metodologia, lanean txertatzeko metodologia eta enplegu-aukerak aztertzeke estrategia):









4. HELBURU OROKORRAK

--

5. HELBURU ESPEZIFIKOAK


--

6. HELBURU OPERATIBOAK ETA EMAITZEN HELBURUAK

KUALIFIKAZIOKO HELBURU OPERATIBOAK (PRESTAKUNTZA GAINDITZEN ETA LOTZEN DUEN PERTSONEN % GUZTIRA)	ADIERAZLEAK (PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA, GUZTIZKOAREN ALDEAN)
ENPLEGUKO HELBURU OPERATIBOAK (KONTRATUA LORTZEN DUEN PERTSONEN % GUZTIRA, ADIERAZI LANALDIA ETA IRAUPENA)	ADIERAZLEAK (PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA, GUZTIZKOAREN ALDEAN)



7. OHARRAK





8. DATUEN BABESA

Tratamendu-jarduerak	Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak.
Arduraduna	Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua.
Xedea	Lanbideren eskumen diren enpleguko politika aktiboekin eta prestakuntzarekin lotutako dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea.
Legitimazioa	Tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak baliatzea.
Datu-lagapenen hartzaileak	Gai horretan eskumenak dituzten administrazio publikoei laga ahalko zaizkie datu pertsonalak.
Eskubideak	Interesdunek beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea dute, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo hari aurka egiteko ere; informazio gehigarrian azaltzen da nola erabili eskubideak.
Informazio gehigarria	Gure webgune honetan kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: (http://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/informacion/condiciones_de_uso_y_politica_de_privacidad/)



9.- ENPRESAREN LEGEZKO ORDEZKARIAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

(*) ABEEn kasuan, hura osatzen duten enpresetako bakoitzak adierazpen hau bete beharko du.

Jauna/andrea:, honako enpresa honen izenean eta ordezkari moduan....., lehen aipatutako laguntza **ESKATZEN DUT** , eta berariaz onartzen dut dirulaguntza hori jasotzeko araututako baldintzak, lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako laneratze eta gizarteratze proiektu berezien garapenerako dirulaguntzen 2020ko ekitaldiko deialdiaren arabera, eta ondorioz,

ADIERAZTEN DUT:

Lehenengoa:

- Erakunde eskatzailea ez dagoela zigortuta zigor- eta administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin, ezta hartarako ezgaitzen dituen legeko debekuaren eraginpean ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraituz.

Bigarrena:

- Ez nago itzultzeko edo zehatzeko inongo prozeduraren eraginpean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzaren bat dela eta.

Hirugarrena:

- Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharraren ordainketak.

Laugarrena:

- Enpresa ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Bostgarrena:

- Erakunde eskatzailea ez dela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dirulaguntzen beste programa batzuen babesean emandako helburu eta xede bereko beste laguntzarik jasotzen ari.
- Erakunde eskatzaileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak euroko laguntza bat eman diola.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari laguntza eskatuta, ebazpenaren zain dagoela.

**Seigarrena:**

BIDE ELEKTRONIKOZ EGIAZTATZEA ESKATZAILEAREN/ORDEZKARIAREN NORTASUNA, ETA OGASUNAREKIKO ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKO BETEBEHARRAK BETETZEN DITUELA.

Lanbidek zuzenean bilduko du eskatzailearen/ordezkariaren nortasunaren gaineko informazioa, eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak ere bilduko ditu.

- Lanbidek eskatzailearen/ordezkariaren nortasuna ofizioz egiaztatzearen aurka nago.

(Aurka egonez gero, NANaren edo AIZren fotokopia aurkeztu beharko da).

- Lanbidek Ogasunarekiko zein Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla ofizioz egiaztatzearen aurka nago.

(Aurka egonez gero, egunean dagoela adierazten duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko dira).

Zazpigarrena:

*5.2 artikuluan aurreikusten diren balizko kasuetarako, proiektu berezi bat garatzeko erakundeen arteko lankidetzaren bitartez:

- Proiektu berezi berean parte hartzeko interesa duten erakunde guztiek legez eratzeko hitza emango dute, honako forma batean: aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez edo zuzenbide publikoko partzuergo baten bitartez (behean sinatzen duen entitateak % ... izango du). Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, aldeko ebazpena jakinarazten denetik hasita. Halaber, epe horren barruan Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan jakinarazi beharko dute baldintza hori bete egin dutela.

Osorik bete beharko da eskabide honetan eskatutakoa, eta dagokion dokumentazioarekin batera aurkeztu. Ohartarazten dugu eskaera ezetsi egingo zaizula, baldin eta, dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin ondoren, ez bada aurkezten hamar eguneko epean. Ebazpen bidez ezetsiko da.

..... jaunak/andreak, erakunde eskatzailearen legezko ordezkarri gisa, eskaera honetan eta horrekin batera doan dokumentazioan agertzen diren datu guztiak egiazkoak direla ziurtatzen du.

.....-n, 2020ko(a)ren(e)an

(Legezko ordezkarriak eskuz egindako jatorrizko sinadura eta enpresaren zigilua).

Sinadura eskaneatua edo horren kopia ez dira baliozkoak.